

Donostian, Ekauta-jauregian, mila bederatzireun eta berrogeta amairugarren urteko Hazilaren ogetazazpian Etxaide maipuru ta Elizalde, Gorostiaga, Dassance, Lafitte, Irigarai, Villasante, Mitxelena, Mulier ta Oleaga euskaltzainak bildurik, egiten dau Euskaltzaindiak egingo deitutako batzarra.

Araudizko otoitzaz emoten dako asiera.

Lenaurreko batzar-agiria irakurri ta ontzat artu da.

Oleaga jaunak adierazoten dau oraindino ezin ikusi izan dauala Bizkaiko Idazki-ordelaria ta orreagaitik ezin lortu izan dauala Euskaltzaindiaren **Euskera** aldirokoa argitaratzeko bear dan baimena, baina laister autuko dala uste dauala. Ekin bekio Oleagak bere eginpideari luzatu barik.

Irigarai jaunak azaltzen dau lenaurreko batzarrean aitaturako Idazti-sariketaren egitama, ta luze, sakon ta zabal gai au azterturik, erabagi da sariketa ori gertu ta iragarrea zertzelada oneekaz:

Sariketak iru izango dira:

— Baten gaia, ertzain-geataera irudikoa, al dala erdal-izakeraduna. Neurria, irureun orrialde txiki idazkailuz lerrobinaka idatzia. Epea, iragarri ondoren, sei ilabete. Sariak: lenengoa, mila peseta; bigarrena, zazpireun eta berrogetamar peseta; irugarrena, bosteun peseta.

— Beste baten gaia ipuin labur sorta, berrogetamar gitxienez ta eun geienez. Ipuin orreen gaia, euskal oiturak ala euskal idazleak erabilia, al dala erri lanaren izke-reaz idatziak. Marrazkiz apainduak nai bada. Epea iragarri-ondoren, sei ilabete. Sariak: lenengoa, mila peseta; bigarrena, bosteun peseta.

Marrazkiak onartzen badira; lenengo saria, bosteun peseta; bigarrena, berreun eta berrogetamar peseta.

— Irugarrenaren gaia, mila zortzireun eta berrogetamargarren urterartenoko euskaldun goragarrien sorta, batez bere gutxi ezagutuak. Neurria, bosteundik seireun orrialde txiki idazkailuz lerrobinaka idatzia. Naiago, a, b, d, z lerrokatuz ta giza-irudiz apainduak datozanak. Epea, iragarri-ondoren, urte bete. Sariak: lenengoa, iru mila peseta; bigarrena bi mila peseta.

Euskaltzaindiak erabagiko dau bere eritziz sariak emon ala ez, eta emotekotan zelan banandu.

Lan guztiak euskeraz datziak izan bear dabe, ta saritutakoak Euskaltzaindiarentzat izango dira.

Oleagak irugarren gaiari oar bat egin dautso. Bere eritziz, gai onen euskaldun goragarriak euskera idazleak ta ez besterik izan bear leitekez. Eritzi au autarkitara ezarri da ta Elissalde berea agertu gabe utzirik, beste batzarkide guztiak ezetsi dabe.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
I. M.^a Etxaide

Zadorkaria
Nazario Oleaga